



KONTSEILUBURUA: Lexuri Ugarte Aretxaga

KONTSEILUKIDEA: Inés Vadillo Alzola

KONTSEILUKIDE-IDAIZKARIA: Daniel Martínez Monge

Gasteiz, 2021eko martxoaren 18a

Aztertu da Gardentasunaren Foru Kontseiluan ----- jaunak (NAN: -----; egoitza, jakinarazpenetarako:-----, PK:-----, -----; helbide elektronikoa, jakinarazpenak eskueran jartzeko: k-----) aurkeztutako erreklamazioa, informazio publikoa eskuratzeko 2020ko urriaren 19an aurkeztu zuen eskaera ezestearen kontra.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Espedientean dagoen dokumentaziotik ondorioztatzen denez, 2020ko urriaren 19an ----- jaunak Arabako Foru Aldundiko Erregistroan eskaera aurkeztu zuen Arabako Errioxako Ur Partzuergoak hasitako egokitzapen prozesuaren bideragarritasun tekniko-juridikoko alderdiei buruzko informazioa eskuratzeko. Zehatzago, lantzen ari zen dokumentu baterako sarbidea eskatzen zuen, hain zuzen, garai hartan, Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria zenak Batzar Nagusietako Ingurumen eta Hirigintza Batzordean 2019ko urtarrilaren 31n egindako agerraldian aipatua.

Bigarrena.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren azaroaren 20ko 291/2020 Foru Aginduaren bidez, ebatzi zen eskaera hori ez onartzea "eskatutako informazioa existitzen ez bada, ez baikaude informazio publiko baten aurrean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 13. artikuluan zehazten den bezala".

Hirugarrena.- 2020ko abenduaren 17an, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen Erregistroan erreklamazio idazki bat sartu zen, informazio publikorako sarbidea ez onartzeagatik, eta berriz eskatzen zen Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria bere garaian aipatutako balorazio tekniko juridiko eta ekonomikoari buruzko txostena eskuratzeko. Euskal Batzordeak gaiaz arduratzeko eskumenik ez zuenez, Gardentasunaren Foru Kontseiluari bidali zion, hari erantsita zihoan dokumentazio honekin batera: 1) Arabako Foru Aldundian 2020ko urriaren 19an aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaeraren kopia; 2) Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren azaroaren 20ko 291/2020 Foru Aginduaren kopia, eskaera onartu ez zuena; 3) Oiongo Udaleko idazkari-kontuhartzailearen txostenaren kopia, 2020ko urriaren 13koa.



OINARRI JURIDIKOAK

1. Erreklamatzailerak egindako eskaerari dagokionez, gaiari sakonki heldu baino lehen, aztertu behar da ea eskaerak betetzen dituen erreklamazio hori azaltzeko beharrezko diren betekizunak; izan ere, Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 35.5 artikulua arabera, oinarrizko legerian ezarrita daude, hau da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean.
2. Erreklamazioa aurkezteko epeaz den bezainbatean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legeak dio 24.2 artikuluan ezen erreklamazioa aurkezteko epea hilabete izango dela aurkatutako egintza jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, eta, hain zuzen, epe horri heldu zion erreklamatzailerak, zeren eta foru agindua 2020ko azaroaren 20an eman baitzen eta-----idazkia 2020ko abenduaren 17an sartu baitzen Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen Erregistroan.
3. Erreklamazioa Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean aurkeztu bazen ere, ebazteko eskumenik gabe jo zen batzordea, eta Arabako Foru Aldundiko Gardentasunaren Foru Kontseiluari helarazi zion.

Bat etorritz 1/2017 Foru Arauaren 35.3 artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, Gardentasunaren Foru Kontseiluak eskumena du foru sektore publikoko edozein erakundek hartutako ebazpenen aurrean gardentasunaren arloan egiten diren erreklamazioak aztertzeko eta ebazteko, eta ebazpen horien artean dago ----- jaunak aurkatutako foru agindua.

4. Behin egiaztaturik erakunde erreklamatu Gardentasunaren 1/2017 Foru Arauari lotzen zaiola, Gardentasunaren Foru Kontseiluaren eskumen subjektiboa eta erreklamatzaileraren legitimazioa, egiaztatu behar da, ondotik, badela egiaz informazio publikoaren eskaera bat, zeren eta, 1/2017 Foru Arauaren eta otsailaren 21eko 5/2017 Dekretuaren arabera, Kontseilu horrek ez baitu eskumenik bestelako auzirik aztertzeko.

Erreklamazioaren xedea da informazio publikoa eskuratzeari buruzko esanbidezko ebazpena, hau da, aipatutako 221/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez ez baitzen onartu erreklamatzaileraren eskaera.

5. Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 18. artikulua arabera, adituko da informazio publikoa dela “Foru Arau honen 3. artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen eskuetan diren eduki edo dokumentuak, edozein dela ere haien formatua edo euskarria, haien beren eginkizunak betez sortu edo eskuratu dituztenak”.

Beraz, eskabidea egiten den unean Foru Arauari lotutako erakunde edo entitate batek eskuragarri duen eta dagoeneko badagoen informazioan oinarrituta egon behar dute sarbide eskaerak, eta, gainera, beren eskumenak erabiliz egindako edo eskuratutako informazioa izan behar dute.



Definizio hori ikusita, eta Ingurumen eta Hirigintza Sailak adierazi duenez ez dela egin bere garaian Ingurumen eta Hirigintzako zuzendariak aipatutako bideragarritasun tekniko-juridikoko alderdiei buruzko txostena, informazioa ez da existitzen eta, beraz, ezin da bidali.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, hau hartu du:

EBAZPENA

Ezestea -----jaunak aurkeztutako erreklamazioa, ez direlako betetzen Arabako Lurralde Historikoko Gardentasunari, Herritarren Parte Hartzeari eta Gobernu Onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 18. artikuluko betekizunak.

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Lexuri Ugarte Aretxaga
Kontseiluburua

Inés Vadillo Alzola
Kontseilukidea

Daniel Martínez Monge
Kontseilukide-Idazkaria